

**EUSKADIKO OSASUN  
SISTEMARAKO  
ZIURTAPEN ZERBITZU  
DIGITALEKO  
ZIURTAGIRIAK  
JULKITZEKO,  
EZEZTATZEKO ETA  
BERRITZEKO  
PROZEDURA**

## Edukia

<b>1.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA .....</b>	<b>3</b>
1.1	ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA .....	3
1.2	ESKATZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA .....	3
1.3	ZIURTAGIRIA JAULKITZEA .....	3
1.4	ZIURTAGIRIA ENTREGATZEA .....	3
<b>2.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA .....</b>	<b>3</b>
<b>3.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK ETETEA .....</b>	<b>4</b>
3.1	ETENAREN GEHIENEZKO EPEA .....	4
<b>4.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRAKTIBATZEA .....</b>	<b>4</b>
<b>5.</b>	<b>ZIURTAGIRIAK BERRITZEA .....</b>	<b>4</b>

## **1. ZIURTAGIRIAK JAULKITZEA**

### **1.1 ZIURTAGIRIAK JAULKITZEKO ESKAERA**

Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitaleko ziurtagiriak jaulkitzeko, <http://www.izenpe.com> helbidean edo <http://www.izenpe.com> helbidean bertan argitaratutako zerrendan adierazitako bulegoetan horretarako interesdunen esku dagoen ziurtagiriak jaulkitzeko eskabidea bete beharko da.

### **1.2 ESKATZAILEAREN IDENTITATEA EGIAZTATZEA**

Osasun-administrazioak adierazi beharko du Euskadiko Osasun Sistemarako Ziurtapen Zerbitzu Digitalaren ziurtagirian agertuko diren eskatzaileari buruzko informazio eta egoera pertsonalak.

### **1.3 ZIURTAGIRIA JAULKITZEA**

Ziurtagiria jaulkitzeko eskaera sinatzearen bidez, eskatzaileak harpidedunaren beraren eta IZENPE, S.A.ren arteko harpidedunaren kontratua onartuko du, eta ondoren ziurtagiria jaulkiko da.

### **1.4 ZIURTAGIRIA ENTREGATZEA**

Erregistro-entitateak, eskatzailea NANaren edo egoitza-txartelaren bidez identifikatu ondoren, ziurtagiria, PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUK) emango dizkio, baita telefono bidez identifikatzeko pasahitza adieraziko duen orria ere. Gainera, ziurtagiria erabiltzeko baldintzen berri emango zaio. Horrezaz gain, eskatzaileak entrega- eta onarpen-orria sinatu beharko du.

## **2. ZIURTAGIRIAK EZEZTATZEA**

Ziurtagiria ezeztatzeko eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan, bere burua NAN edo egoitza-txartela aurkeztearen bidez identifikatu ostean, ziurtagiria ezeztatzeko eskaera bete beharko du. Horretarako, beharrezkoa balitz, ezeztatzeko arrazoia egiaztatzen duen agiria entregatu beharko luke.

Ezeztatzeko arrazoiak eta ezeztatzea eska dezaketenek bete beharreko baldintzak Izenpe, S.A.ren Osasun Txartel Elektronikorako Ziurtapen Praktiken Deklarazioan, 4.4. atalean, kontsulta daitezke.

### 3. ZIURTAGIRIAK ETETEA

Gakoen edukitzaileak edozein unetan eta, betiere, ziurtagiria galdu edo lapurtuz gero, eskatu ahal izango du ziurtagiria eteteko, 902 542 542 telefono-zenbakira deituz. Identifikatzeko ondorengo datuak eman beharko ditu:

- Harpidedunaren banakako osasun-txartelaren zenbakia.
- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza.

#### 3.1 ETENAREN GEHIENEZKO EPEA

Etenaren gehienezko epea hamabost egun naturalekoa izango da, gakoen edukitzaileak eskatzen duenetik hasita. Epe horretan zehar harpidedunak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatu beharko du, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Epe hori igaro eta gakoen edukitzaileak ziurtagiria berraktibatu nahi duela baieztatzen ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

### 4. ZIURTAGIRIAK BERRAKTIBATZEA

Gakoen edukitzaileak 15 egun naturaleko epea izango du ziurtagiriak berraktibatzeke, berori eteteko eskaera egiten duenetik hasita. Epe hori igaro ondoren ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Gakoen edukitzaileak erregistro-entitate batera joan beharko du ziurtagiria berraktibatzeke. Bertan, NAN edo, atzerritarra bada, egoitza-txartela aurkeztu beharko du bere burua identifikatzeko eta berraktibatzeke eskaera entregatu beharko du, behar bezala beteta.

### 5. ZIURTAGIRIAK BERRITZEA

Ziurtagiri bat berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), eskatzaileak ziurtagiri berria eskatu beharko du, ziurtagiriak jaulkitzeko finkatutako prozesuari jarraiki.